

EBAZPENAK: WEEBLYN-2.EBALUAKETA-ERREPASOA DISOLBAGARRITASUNA- ERREPASO (1)

1.- 20 °C-an, gehienez ere 0,99 g berun(II)kloruroa 100 mL-ko uretan disolbatzen da.

- Kalkulatu berun(II) ioien eta kloruro ioien kontzentrazioak disoluzio asean.
- Kalkulatu berun(II)kloruroaren disolbagarritasun-biderkadura 20 °C-an
- Disoluzio batek berun(II) ioiak ditu 0,010 M-ko kontzentrazioan.

Kalkulatu zein izan beharko litzatekeen kloruroaren gutxieneko kontzentrazioa, berun(II) kloruroa hauspeatzen has dadin.

DATUAK: Masa atomikoak: Pb: 207,2; Cl: 35,5

(a)0,036M; 0,072M;b)1,87.10<sup>-4</sup>; c)0,14M )

2.- Temperatura jakin batean, aluminio hidroxidoaren disolbagarritasun-biderkaduraren balioa 1,8.10<sup>-33</sup> da. Disoluzio bat prestatzen da eta hidroxido ioiak eta Al<sup>+3</sup> ioiak ditu, horien kontzentrazioak 1,5.10<sup>-3</sup>mol/l eta 2.10<sup>-6</sup>mol/l hurrenez hurren, hauspeakina sortuko al da?.

(Hauspeakina sortuko da  $Q= 6,75.10^{-15}$ )

3.- Berun (II) iodoa disolbagarritasun-biderkadura 1,4 X 10<sup>-8</sup> da 25°C-an.

- Kalkula ezazu berun (II) iodoaren disolbagarritasuna uretan tenperatura horretan.
- Kalkula ezazu berun (II) iodoaren disolbagarritasuna tenperatura horretan sodio iodoaren disoluzio 0,050 M batean. Emaitzak konparatu.

( a ) 1,52.10<sup>-3</sup>M; 5,6.10<sup>-6</sup>M . Ioi komuneko efektuarengatik sodio iodoan berun (II) iodoa disolbagarritasuna txikitzen da.)

4.-Zink hidroxidoaren disolbagarritasun-biderkadura 2,2.10<sup>-5</sup> da 25°C-an.

- Kalkulatu zink hidroxidoaren disolbagarritasuna uretan, 25°C-an
- 500 ml zink kloruro 0,02 M eta 600 ml bario hidroxido 0,03 M nahasten direnean, hauspeatuko al da zink hidroxidoa?

Datuak: Masa atomikoak: H:1; O:16; Cl:35,5 ;Ag:108 ; S:32

( a ) 0,018M; b) ez da hauspeakinik osatzen  $Q= 9,3.10^{-6}$ )